



ENRIKE ZURUTUZA / Ihintza Agirretxe / **uzfarria**

Enrike Zurutuza

Ihintza Agirretxe

uztarria

© Egilea. Ihintza Agirretxe
© Uztarria Komunikazio Taldea

2012ko azaroa

Azala. Eregi Euskara eta Komunikazio Zerbitzuak (Azpeitia)
Diseinua

Maketazioa. Uztarria Komunikazio Taldea

Inprimaketa. Leitzaran Grafikak (Andoain)

Uztarria Komunikazio Taldea.

Helbidea. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia (Gipuzkoa). 20730

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Telefono zenbakia: 943 15 03 58

Fax zenbakia: 943 15 03 58

Posta elektronikoa: uztarria@uztarria.com

web orria: www.uztarria.com

AURKIBIDEA

Bizitzaren zertzeladak	07
Ataungo azpeitiarra	08
Ariñaunditik unibertsitatera	13
Aitaren ukoa	16
Gerra Zibilean, boluntario	18
Azpeitira, kostata	22
Baina errespetuz	25
Ia katuak adina bizi	26
Ibilgailuak	29
Albaitari eta ikerlari	32
Antzerkirako pasioa	36
Euskara ahoan eta bihotzean	38
Hedabideetako kolaboratzaile	40
Famillia osatuz	45
Aita eta attitte	46
Langile nekaezina	51
Ukuiluak uzteko garaia	54
Errekonozimenduak	55
Azken esfortzua	56

BIZITZAREN ZERTZELADAK

Mila piezako puzzlea osatzea bezala da Enrike Zurutuzaren (Ataun 1917, Azpeitia 2010) bizitza harilkatzea. Batzuetan, pertsona orok ditugun bezala, badira elkartzeko zail xamar egiten diren piezak. Beste batzuetan, berriz, bi pieza elkartzean osatzen da bizitzaren maparen zati handi bat.

Zenbait gai edo arlotan bere garaiari aurre hartu zion. Beste zenbaitetan, aldiz, garaiak aurre-ra egin arren, berean jarraitu zuen. Bere kontraesantetan ere, koherentea izaten saiatzen zen, ordea.

Gizon kontserbadorea, errutina zalea, serioa bezain umoretsua (umore beltzekoa) eta langilea. Enrike Zurutuzaren bizitza ondoen deskribatzen duen hitza hori da, bai: lana. Lana, lana eta lana. Lana egin zuen bizimodu. Izen handiko albaitari nekaezina, horixe izan zen, batik bat. Baina ez hori bakarrik.

Eguneroko albaitari lanaz gain, urte askoan irratia zein egunkari askotako kolaboratzailea izan zen, eta literaturan ere sartuko zuen eskua. Askok eta askok izango dute oraindik buruan urte luzez La Voz de Guipuzcoa irratitik berriketan aritzen zen Joxe Miel baserritarra: Enrike Zurutuza.

Abertzale ez izanagatik, euskaltzale amorratua zen. Euskararen aldeko hautua egin zuen, eta sutsu defendatu zuen. Aldi berean, ordea, euskara batua-ren kontrakoa zen. Euskalkiak atsegin zituen, eta tokian tokiko hizkuntza berezitasunak babestearen alde egiten zuen. Berak, Ataungo hizkera ez zuen erabat galdu inoiz, nahiz eta, tarteka, azpeitiarke-riaren bat edo bestek ere alde egiten zion.

Bere bizitzako hirutik bi parte Azpeitian eman zituen, eta azpeitiar sentitzen zen Enrike Zurutuza; hori aitortu ohi zuen, behintzat.

Hori guztia izan zen Zurutuza, baina ez hori bakarrik.

ATAUNGO AZPEITIARRA

1917ko uztailaren 14an, Ataungo Ariñaundi base-rrian jaiotako azpeitiarra da Enrike Zurutuza. Entzuna dut, beste gizaki guztiak jaiotako lekukoak izaten direla, baina azpeitiarrek beraiek hautatzen dutela non jaio. Zurutuzak, Ataungo Ariñaundi baserrian jaiotzea erabaki zuen.

Izaera handiko etxea eta auzoa zirela zioen berak, eta bera ere ez zen nolanahikoa izan. Enrike ere izaera handiko gizona izan baitzen; hori diote,



Enrike aita eta amarekin.



Roda en Larraitz

1960

Maria Dolores Odriozola
emaztearekin, 1960an.

behintzat, bera ezagutzeko aukera izan zuten guztiek.

Ariñaundi baserriko maiorazkoa zen Enrike, seme bakarra baitzen (arreba zaharragoa zuen). Hala ere, baserria utzi eta beste zeregin batzuei ekin zion. Nahiz eta bizitza osoan baserri mundua-rekin lotuko zuen zilbor-hestea ez zuen etengo.

Ikastea izango zuen pasioa eta afizioa bizitza osoan. Ikasketak Ataungo eskolan hasi zituen, gaztelaniaz. Maisua propio erdalduna eramana zuten Ataunera, bertako haurrek gaztelaniaz hitz egiten ikas zezaten. Sistema sinplea zen: goizean maisuak ikasle bati lokarria jartzen zion eskumuturrean. Hark bere kideak gertutik jarraitu behar izaten zituen, eta euskaraz hitz egiten zuenari lokarria pasatuko zion. Egunaren bukaeran eskumuturrean lokarria zuena zigortu egingo zuen maisuak. Beraz, zuzen edo oker baina gaztelaniaz egin behar izaten zuten.

Ataungo eskolan pare bat urte-edo egin zituen. Ikastea atseegin zuen, eta ikasle fina zen. Maisua ere ohartu zen horretaz, eta behin, pasieran zebilela Enrikeren aita Andresekin egin zuen topo. Berriketan hasi, eta semeak handik aurrera zer egingo zuen galdetu zion. Eta esan, ikasle ona zela,

1925ean, Ataungo eskolan, bere
ikaskideekin.



1939an, Ataunen bere lagunekin.

eta lagunduz gero, karreraren bat egiteko ere gai izango zela. Nahiz eta baserritar familia izan, ez zen baserriko familia tipikoa zurutuzatarrena. Enrikeren aita Ataungo Udalean zinegotzia ere izango zen, eta osabaren bat benediktarra ere izango zuen. Beraz, ikasketei garrantzia emango zioten familian.

Garai hartan baserriko seme-alabek ohiko ikasketez gain batxilergoa-eta izatea ez zen ohikoa, eta baserriko seme zaharrena ikastera bultzatzea oraindik ere ez-ohikoagoa zen. Baina gurasoek Enrikeri ikasketak emateko apustua egin zuten.

Hala, Beasaingo lasalletarren ikastetxean segitu zituen ikasketak urtebetez; batxilerrera sartzeko egin beharreko azterketa prestatzen arituko zen. Han, gerora Sukia kardenala izango zena izan zuen ikaskide eta lagun. Urteak beranduago, hika hitz egiten jarraituko zuen bere lagun min kardenalarekin.

Urtebetean ikasten aritu ondoren, Donostiara joan zen azterketa egitera, baina ez Zurutuzak eta ez berarekin batera joan ziren gainerako ikasleek ez zuten gainditu. Hala ere, aita ez zuen etsi, eta Ordiziko (garai hartan Villafranca esaten zioten) akademia batera eramane zuen. Hango zuzendariak

galdeketa txiki bat egin ondoren, udazkenerako prestatuko zuela esan zion. Udazkenean Gasteizera joan zen azterketa egitera, eta gainditu egin zuen. Batxiler osoa akademia horretan bertan egin zuen.

Batxilerra egiten zuen bitartean egunero-egunero bizikletan joaten zen Ataundik Ordiziara. Egunero 32 kilometro egiten zituen pedalen gainean. Hala ere, zortea izan zuen, sei urteko batxilerra bost urtean egin baitzuen, udak ikasten pasatuz eta azterketak Gasteizen eginez.

Batxilerra bukatuta karrera aukeratzea izan zuen lana. Bat edo beste egin duda egin ostean, azkenean albaitaritza egitea erabaki zuen. Non, eta Zaragozan (Espainia). Ataundik irten eta ziutatera joan zen, baserritik irten eta unibertsitatera.

ARIÑAUNDITIK UNIBERTSITATERA

Zaragozara iristean, han ere ez zen galdu Enrike. Han ere aurkitu zituen euskaldunak, baita ataundarrak ere. Haiengana elkartu eta haien pausoei segitu zien. Orduan ikasleek apopilo etxeetan hartu ohi zuten ostatu, eta han ikasten ari zen ataundar batek bera zegoen etxera eramán zuen. Apopilo etxeko nagusia Alfonso XIII.aren etxeko sukaldari nagusia

izandakoa izan zuten –Errepublika ezarri berria eta erregea alde egin berria zen Espainiatik–. “Eguneko duroa ordaintzen genuen, eta eguneko bi printzipio (otordu) ematen zizkigun. Eguerdian eta iluntzean. Dena konpleto”, gogoratu zuen Zurutuzak Euskadi Irratian eginiko irratsaio batean. Ondo hartu zituzten apopilo etxean, hurrengo urtean ere saiatu baitzen etxe berean ostatu hartzen, baina aurea hartu zioten, eta lekurik gabe gelditu zen.

Ikasle ona izan zen Zurutuza. Karrera bukatzerako ohorezko matrikula mordoxka pilatu zituen, baina lehenak eman omen zion aurrera gogor egiteko indarra. Lehen matrikula hura, gainera, Ezkioko Amabirjinari zor ziola gogoratu zuen Euskadi Irratirako egindako elkarrizketa batean.

Ikasturtea hasi eta hilabete eta erdira edo, kimikako klasean zirela irakaslea, katedraduna bera, ikasleei ikasitakoaz galderak egiten hasi omen zen. Galdetu bati eta erantzunik ez omen zuen jaso, besteari galdetu eta hark ere erantzunik ez. Halako batean, Enrikeren izena esan, eta hari hasi zen galdezka. Galdera bat egin eta egoki erantzun zion, baita hurrengo guztiak ere. Klasea bukatutakoan, irakasleak gerturatzeko eskatu zion eta zorionak



1935ean, Zaragozan, Unibertsitatean
ateratako argazkia.

1925

eman galderak ondo erantzuteagatik. Ondoren, nongoa zen galdetu omen zion irakasleak. Enrike dudatan egon omen zen zer erantzun, Ataun ez baitzen mapetan ere agertzen. Azkenean, hala ere, Ataungoa zela esan zion. Eta hark galdetu ea zer moduz zebilen Patxi Santu. Patxi Santu Ariñaundi baserritik gertu bizi zen ataundarra zen, eta Zaragozako puntako kimika irakasle katedradunak ezagutzen zuen!

Ondoren kontatu zion irakasleak Ezkioko Amabirjina agertzen hasi zenean eta gora beherak izan zirenean, Ormaiztegiko bainuetxean zela oporretan, eta Patxi Santu ezagutu zuela. Bukatzeko, ikasketetan bide beretik jarraitzeko esan eta animoak eman zizkion. Ikasturtea bukatzean, ohorezko matrikula atera zuen kimika ikasgaiari. Ehun lagunetik bik soilik izaten zuten ohore hori, eta ohorezko matrikula ateratzen zuenak aulkia ere ezberdina izaten zuen. Lehen matrikula hura Ezkioko Amabirjinari edo zor zion, beraz.

AITAREN UKOA

Aitak ezer gutxi ukatuko zion Enrikeri bere bizitza osoan. Hala ere, zahartzaroan oraindik ere bazuen,

Gaztetatik, bere azken
urteetara arte asko
idatziko zuen.



Idaztearekin batera, irakurtzea izango
zuen pasioa.



aitak ukatutako gauza bakarrenetakoaren arantza txiki bat. Beraz, uko hark gehiago edo gutxiago, markatuko zuen bere bizitza.

Zaragozan albaitaritza ikasten ari zela, bigarren karrera bat egiteko gogoia sartu zitzaion. Bat nahi-koa ez, eta bi karrera batera egitea otu zitzaion ataundarrari. Buruan, medikuntza-edo ikastea omen zuen. Aitak, ordea, horixe ukatu zion. Bigarren karrera egiteko dirua ukatu zion.

Zurutuzak uste zuenez, aitak hori ukatzeko arrazoi nagusia osasuna zen. Izan ere, urte batzuk lehenago bere lehengusu bat gaixotu eta zendu zen. Ustez, gehiegi ikasteagatik burua nahastuta. Beraz, seme bakarra babesteko asmoz ukatuko zion semeari ikasketak zabaltzeko aukera.

GERRA ZIBILEAN, BOLUNTARIO

Albaitaritza ikasketak bukatzeko pare bat urte falta zitzaizkiola, uda pasatzera etxera etorria zela, Espainiako Gerra Zibila lehertu zen. 1936. urteko uztaila zen, eta 19 urte zituen. Ataun Nafarroako mugan dago, eta Nafarroatik segituan sartu ziren erreketekak herrira; Santio Egunean, hain zuzen, eta Enrike plazan zen. Han ikusi zuen herriko bikario-

ak nola eman zizkion herriko giltzak erreketeen jeneralari, eta nola esan zion alkatea alde egina zela.

Gerra hasi eta segituan hasi ziren kintak soldadu deitu eta gerrara eramaten. Lehenengo 36koak, sei bat hilabetera 37koak... Zurutuza 38koa zen, eta deitu aurretik, militarren aurrean boluntario agertu zen. Boluntarioek zertan aritu aukeratzeko modua izaten zuten, eta hura albaitari izateko aurkeztu zen. Albaitariak falta zituzten, eta onartu egin zuten. Berak azaltzen zuenez, ez zuen frontera joan nahi, eta horrela saihestu zuen.

Patua zer den, Azpeitian sartu zen albaitarien taldean. Hemendik Burgosko (Espainia) kuartel nagusira bidali zuten. Han ganadutegi batean zaldi eta mandoak osatzen aritu zen. Tartean, Franco jeneralaren zaldia ere sendatu behar izan zuten. Berak gogoratzen zuenez, Domeq-ek oparitutako zaldia zen. Franco bera ez omen zen joaten zaldia bisitatzera, baina laguntzailea bai, eta sarri.

Iparraldeko frontea bukatzean, Jakara (Espainia) bidali zuten. Jakara hogeitau soldadu bere kargu zituela. Eginkizuna, ospitale mugikorrak osatzeari gerra pasatzen zen lekuetan. Horrela joan ziren Jakatik Gironaraino (Herrialde Katalanak),

Pirinioetan barrena. Gerra pasatutako herrietara joan, lokala bilatu, tresnekin prestatu eta ganadua osatu behar izaten zuten.

Soldaduak izanik, herrietan familien etxeetan hartzen zuten ostatu. Hasieran, kopeta beltzarekin hartzen zituzten; baina al baitariak izanda, hiltegietatik haragia eraman ohi zuten etxeetara, guztientzat. Beraientzat eta etxekoentzat. Azkenerako, etxekoak penatan izaten ziren alde egin behar izaten zutelako, haiek etxean izaten ziren bitartean haragia ziurtatua izaten baitzuten.

Hilabete askoan, Lleidako Sort herrian (Herrialde Katalanak) izan ziren. Han ondo bizi izan ziren. Goizean lan egiten zuten, eta arratsaldean herriko neskekin pasieran ibiltzen ziren. Zurutuzak erdi barrezka gogoratu ohi zuenez, ordea, formal, oso formal portatu ohi ziren.

Kataluniako frontea bukatzean, Madril aldera joan ziren. Frontea Madrilera sartzerako gerra bukatu egin zen, ordea. Han hilabete batzuk egin da, Erreteriarra ekarri zuten. Soldaduen kontuak eta argitzeko denbora behar, eta Erreterian egon behar izan zuen. Gizartea normalizaziora bueltatzen hasi eta unibertsitateak irekitzen hasi zirenean, Zaragozara, unibertsitatara bueltatu zen.

Artisanado equitacion

Artesa etxaldea zaintzen,
1938an, Gerra Zibilean.



Gerra Zibilean zaldi baten zauria
sendatzen.

Buelta tristea izan zen benetan hura. Unibertsitatera iristean, batzuk frontean hilak ziren, beste batzuk elbarri geldituak... Erdiak ere ez omen ziren itzuli unibertsitatera, eta bueltatu zirenen artean besarkada ugari eman zituzten. Zurutuzak berak esaten zuenez, gerrara albaitari joateko inspirazioak salbatu zuen bera.

AZPEITIRA, KOSTATA

Gerra ostean, albaitari izateko falta zitzaizkion ikasketak bukatzearekin bat, unibertsitatean irakasle batekin praktikak egin zituen. Han ikasi edo hobetu zituen zirujautza ikasketak, besteak beste. Karrera bukatu ostean, herrietan lanean hasteko Madrilen oposaketa moduko azterketa bat egin behar izan zuen. Hura gainditzen ere ez zuen bestelako zailtasunik izan. Hala, gerra ostean herrietan albaitari bakante ugari zeuden, eta Enrikek lau herri hautatu zituen: Tolosa, Bergara, Azpeitia eta Eibar.

Tolosan bertako seme batek ere eskatua zuen hango postua, eta harekin hitz egin eta errukitu ondoren, Bergarako postua eskatzea erabaki zuen. Han ere, botikariaren semeak eskatua zuela, eta



Osasungintza diplomatura ateratzeko
egindako ikastaroko beste ikasleekin.

Bakteriologia irakaslearekin
hizketan



Azpeitira etorri zen. Baina ez zen erraza izan Azpeitiko postua hartzea. Azpeitiko kontuak argitu eta postua berari eman arteko urtebete inguruan Eibarren izango zen. Han egingo zituen albaitaritzako lehen lanak. Hala ere, bere seme gazteenak, Jose Mari *Tutu*-k uste duenez, aitaren benetako nahia Eibarren gelditzea zen: “Nik uste aitaren nahia Eibarrera joatea zela, hura herri handiagoa zelako; baina noten arabera izaten zen, eta bere notaren arabera Azpeitia zegokiola uste dut”.

Hemen, Azpeitian, alkateak denuntziatu egin zuen; “kazikada ugari egiten ziren garai hartan”, azaltzen zuen Zurutuzak berak. Bera zen postua eskuratzeko zerrendan lehenengoa, nota onak eta puntu asko baitzituen. Baina interino egona zen bati eman zioten postua. Zurutuzak, legea eskuan, errekurritu egin zuen, eta gobernadorea ere alkatearen alde jarri zen. Baina ministerioak –Espainiakoak– Zurutuzari eman zion arrazoia.

Hortik aurrera biderik ez zutela ikusita, bigarren aldiz salatu zuten, oraingoan bere alde egiteko zinegotziak diruz erosi zituela esanez. Orduan ere ministerioak Zurutuzari eman zion arrazoia. Izan ere, zerrendako lehenak zinegotziak erostea harri-garria izango zela uste zuen ministerioak.

Eta hala izanda ere, lehen postuan zegoena izendatzeko garaian zergatik ez zen izendatu jakinarazi eta zerrendako bigarrena izendatu behar zuketela jakinarazi zuen. Eta ez zela logikoa egin zutena, 13. postuan zena izendatzea. Hala, hori argituta etorri zen Zurutuza Azpeitira. Azkenean, aurkeztu ziren 33etatik lehen tokian zena izendatu zuten posturako, urtebete beranduago bazen ere.

Hemen, Azpeitian, ia 60 urtez izan zen albaitari, eta hemen osatu zuen familia. Hemen bota zituen sustraiak, eta berak esaten zuenez, hemengo sentitzen zen bizitzaren hirutik bi parte hemen eginda.

BAINA ERRESPETUZ

Gaudenzio Arregi azpeitiar albaitariaren postua beteko zuen Azpeitian Zurutuzak. Hura izan zen gerra lehertu arte herriko albaitaria. Errepublikazalea izanik, 1936an, Gerra Zibila hasi bezain pronto herria utzi zuen, eta matxinatuen gobernuaren dekretu bat medio, albaitari-ikuska-tzaile postua kendu zioten.

Gerra ostean, Enrike Zurutuza Azpeitian lanean hasi arte, hainbat albaitari ibili ziren Azpeitian lane-

an. Inork gutxik egin omen zion kasu horrenbeste urtez herriko al baitari izandakoari, Gaudentzi Arregiri, alegia.

Enrikek, aldiz, lanean hasi bezain pronto Gaudentziorengana jo zuen. Bere burua aurkezteaz gain, animoak emateko.

Gaudentzio, lana galdu ostean behea jota zegoen, behin-behineko al baitari haiek kasurik ez egiteaz gain, haietako batek salaketa jartzeko mehatxua ere egin baitzion. Beraz, on egin zion bisita hark. Bi gizonen arteko hartu-emana ez zen keinu horretan soilik geldituko, ordea.

Ugalketak eta antzutasunak elkartuko zituen bi lagun hauen ibilbideak. Arlo horri lotutako al baitaritza klinika bat ere izango zuten Villa Consueliton (Gaudentzioren etxean). Mota horretako lehen klinika izango zen ziurrenik penintsulan. Eta hor ekin zioten ikerketak egiteari, eta esperimentatzeari.

IA KATUAK ADINA BIZI

Lana zuen bizimodu, eta Zurutuzaren ibilerek gertakizun askorako bide ematen zuten. Lanbidea tarteko izandako abentura edo xelebrekeriez hitz egi terakoan ez zuen asmatzen nondik hasi; izan ere

bazuen zer kontatua. Behin hariari tiraka hasten zenean, ordea, zaila isiltzea izan ohi zen. Gainera, bazuen istorioak kontatzeko grazia, bizia zen hizketan, eta kontuak akordatzearekin bat berriro bizi ohi zituela zirudien. Jartzen zion erromantizismo pixka bat ere bere partetik kontakizunari.

Kontatu ohi zuen hiru aldiz hila zutela, behin ere enterratu gabe. Ia katuak adina bizi izan zituen, beraz. Lehen aldiz, 1954an hiltzat jo zuten. Zestoan izan ziren uholdeetan hil zela zabaldu omen zen. Elgoibarko bezero batek meza eta dena eman omen zuen bere arimaren alde.

Orduko hartan, ordea, guztia ere ez zen gezurra izan. Albaitari bat hil zen uholde haietan; Zestoakoa, hain zuzen. Baina Zurutuza hil zela zabalduagatik, beti bezain bizirik segitzen zuen hark.

Bigarren aldian, Azkaraten hil zela zabaldu zen. Elgoibarko baserri batera joana zen lanera, eta iluntzen ari zenez, bertan afaldu ostean abiatu zen Azpeitira, etxera. Azkarateko bidean behera zeto-rrera, ipurdi azpian berotasuna sentitu zuen. Begiratu zuenerako motoa sutan zuen, eta errepi-dearen albo batera salto egin zuen, motoa albo batera utzita.

Motorrak su hartu zuen, eta hantxe egon zen itzali arte. Han zela, automobil zale bat gelditu zitzaion zer gertatu zitzaion galdezka. Hark lagun-duta motorra albo batera baztertu eta han utzi zuten. Eta han abiatu ziren Azkaraten behera autoan, etxera autoan gerturatuko zuela esan baitzion. Abiatu eta segituan, bi guardia zibil topatu zituzten bijilantzian. Gidariari gelditzeko esan zion Enrikek, guardia zibilei badaezpada gertaturikoa azaldu, eta motorra han laga zutela esateko. Arazorik ez zela, baina badaezpada hurrengo egunean kuarteletik pasatzeko esan zioten haiek.

Gelditu bezala, hurrengo egunean han joan zen zintzo Zurutuza guardia zibilen kuartelera, eta atetik sartzerako sesioan hasi zitzaion kapitaina. Zurutuzak zer gertatzen zitzaion galdetu eta aurreko gauean pasatutako guztia azaldu zion. Kapitainak ondoren esan omen zion, gau osoa errekan bere bila ibili zirela, pertsona batek motoa erreka zegoela abisua eman ostean. Zurutuzak berriro esan zion bi guardia zibili gertatutakoa azaldu zietela. Baina, dirudienez, bi guardia zibil haiek eguna argitu arte ez ziren kuartelera itzuli, eta ez zioten jakinarazi kapitainari gertatutakoa. Beraz, gau osoa pasatu zuten haren bila.

Hirugarren aldian, Arroako tunelean hil zuten. Berea bezalako auto batek egundoko istripua izan zuen tunelaren inguruan. Hura ikusita, inguruetako baserritar batzuk elkartu eta gertatutakoaz hitz egi-ten hasi ziren. Haietako batek pixka bat lehenago inguru horretan ikusi omen zuen al baitaria, eta istripua izan zuen autoa berearen berdina izanik, hil egin zela ondorioztatu zuten.

IBILGAILUAK

Aurretik aipatu bezala, oso gaztetatik behar izan zituen garraiorako ibilgailuak Zurutuzak. Lehenengo, Ataundik Ordiziara egunero joateko bizikleta izango zuen. Geroago, ogibidea medio, motoa, belomotorra eta autoak eta autoak izango zituen.

Lanean hasi zenean, lehenengo bizikletan ibili zen alde batetik bestera. Ondoren, ordea, belomotorrak jarri ziren modan. Eta Zurutuzak belomotorra izateko eginahalak egin zituen. Kostatu zitzaion lortzea, baina azkenean milaka kilometro egin zituen belomotorra izan zuen.

Belomotorra nahi eta Italian ederrak bazirela enteratu zen. Eta Italiatik nola edo ahala ekarri

behar zuela sartu zitzaion buruan Zurutuzari. Baina garai hartan ez zen gaur bezalako erraza herrialde batetik bestera gauzak pasatzea; hala ere, lortu zuen erosi eta Azpeitiraino ekartzea. Ondo gogoratzten zuen zein urtetan erosi zuen belomotorra: 1958. urtean, Lurdesko Amabirjinaren mendeurrenean.

Zumarragako Dionisio Oñatibia medikuaren etxeko karreran utzi ohi zuen bizikleta Madrileraredo joateko trena hartu behar zuenetan. Eta Dionisioren anaia bat apaiza zen. Haren bidez erosi zuen belomotorra Italian. Gero arazoa, ordea, hura nola ekarri zen, kontrabandoan.

Oñatibiatarren artean bazen moja bat ere, eta Lurdesko Amabirjinaren mendeurrena izanik, trenak mojaz beteta zebiltzan bueltaka. Hala, moja baten maletan belomotor osoa sartu, eta horrela etorri zen Azpeitiraino. Ondoren, Azpeitia eta inguruko bide, bidezidor, malda eta lautada guztiak ez badira ia guztiak ezagutu zituen ibilgailu hark.

Ondoren Vespa bat eta hamar bat auto ere erreko zituen. Azkeneko bi auto ere izan zituen aldi berean. Bat hobexeagoa kaleko kontuetaarako ibiltzen zuen, eta bestea lanerako, baserri bideetan hara eta hona ibiltzeko.



1958an, Arantzazum
motorra bedeinkatzen.



Seme alabak, aitaren
kotxe alboan.

ALBAITARI ETA IKERLARI

Baserriz baserri albaitari lanean ibiltzeaz gain, bere ogibideari lotutako ikerketa lanak ere egin zituen. Aurrez aipatu bezala, Villa Consueliton, Gaudenzio Arregirekin batera albaitaritzak klinika bat jarri zuen. Horretan, gero beraien ikerketetan bezala, aurreratuak izango ziren. Garai hartan ez zen horrelako beste klinikarik izango inon, baina Arregi eta Zurutuza aitzindari izan ziren, bai klinika jartzen, baita egingo zituzten ikerketetan ere.

Ugalketa, antzutasuna, irentzea, zesarea eta beste hainbat kontuz arduratzen ziren eguneroko lanean. Ikerketarako, ordea, intseminazio artifiziala izango zuten buruan, besteak beste.

1946. urtean, emaztearen kontuak konpondu asmoz, Kubara joan zen. Kubako iraultzaren mugimendua hasieran zen, eta emazteak herentzian jasotako lur batzuen inguruko kontu batzuk konpontzeko asmotan joan zen Enrike. Han, sei hilabetezko egonaldia egin zuen eta intseminazio artifizialaren inguruko jakituria handitzeko probestu zuen. Bidaia hura ere, nola ez, abentura hutsa izan zen. Eguneroko bizitzan hamaika abentura eta istorio izanda, bidaia horretako abenturak ere ez ziren



1946an Kubara egindako bidaian, haur batekin.



1946an Kubara egindako bidaian, Domingo Astiazaranen etxaldean, zaldian ibiltzen.

gutxi izan. Handik, jakituriaz gain, intseminazio artifizialak gauzatzeko tresneria ekarri zuen.

1947. urtean bi intseminazio artifizial gauzatu zituzten. Lehena Landeta-Etxeberri baserrian egin zuten, eta Joxe Mari Otaegiren ordura arteko behi antzua ernaldututa zuten. Garin baserriko Daniel Olaizolaren behi txordoarekin ere egin zuten froga. Zurutuzak kontatu ohi zuenez, baserritarrek ez zituzten behiak erraz uzten ikerketak eta frogak egiteko, eta bi intseminazio horiek ere jabeei txintik esan gabe egingo zituzten.

Trichomoniasis bovina gaixotasunaren inguruko ikerketa ere egin zuen. Azpeitira etorri eta lehenengo urteetan konturatu zen ernaldutako behi askok lehen hilabeteetan galtzen zutela fetua. Hau da, abortu naturalak izaten zituztela. Hori aztertzen hasi zen orduan, eta Errezil aldean-eta ematen zen *Trichomoniasis bovina* gaixotasuna aurkitu zuen. Gaixotasun hori Gipuzkoan eta ziurrenik penintsula osoan lehen aldiz aurkitu eta dokumentatu zuen pertsona izan zen Zurutuza. Gaixotasun horren inguruan ordura arte eginda zegoen ikerketan sakondu zuen, eta 1947. urtean *Ciencia Veterinaria* izeneko aldizkarian argitaratu zuen bere lan luze eta zabala.



Gerra Zibilean, 1938an,
mando bat sendatzen

*Operación Aum m
en campaña*



69an Odria baserrian,
sarea egiten

Ikerketak egiteko zaletasunaz edo bokazioaz gain, lanbideari lotutako zenbait proiekturen bultzatzaile ere izan zen. Hala, Zizurkilgo Fraisoron intseminazio artifizialak gauzatzeko gune bat sortzeko ekimenaren bultzatzailea izan zen. Aranzadi zientzia elkarteko kide ere izan zen, eta Hernaniko Zabaltegi nekazaritza eskolaren sortzaileetakoa ere bai.

1954 eta 1980. urteetan Gipuzkoako Albaitaritza Eskola Ofizialeko lehendakari ere izan zen.

ANTZERKIRAKO PASIOA

Enrikeren bizitzako pasarte batek antzerkiarekin ere badu harremana. 1960. hamarkadan, elizaren babesean, euskarazko antzerkigintzan hasi zen. Obra bat dezentea egin zuten gainera, *Pasioa*; Enrikek berak egokitu zuen obra, gainera, *Odol eskaintza* izenekoa.

Ehun lagun inguruk hartu zuten parte antzezlanean, eta Enrike zuzendari lanetan aritu zen. Obran antzezleek eta koruak, denek hartu zuten parte.

Pilar Aizpitartek ere hartu zuen parte; antzerkiko bere lehen papera bertan egingo zuen. “Ni kan-

tura joaten nintzen hasieran. Baina Enrikek paper-txo bat egiteko eskatu zidan. Ez nuen hitzik egin behar, negar bakarrik. Eta hantxe hasiko nintzen ni antzezten, Enrikek bultzatuta”, gogoratzen du.

Talde handia gobernatu behar izaten zuen zuzendariak, baina Aizpitartek ez du gogoan Enrikek buila gehiegi ateratzen zuenik. “Gauzak zuzen eta serio esaten zituen, eta kaso egiten genion. Genioa zuen, baina zuzendari gisa, lana serio egiten zuen”, gogoratzen du.

Pasioa-z gain beste antzezlan batzuetan ere hartu zuen parte Zurutuzak, baina ez ziren hura bezalako garrantzitsuak izan. “Pasioa-rena izugarria izan zen. Azpeitian hainbat saio eskaini ostean, Donostiara ere joan ginen, Victoria Eugenia antzeztu genuen. Hori handia zen garai hartan”. Handia zen Donostian antzeztea, eta handiagoa saio guztietan sala leporaino betetzea.

Pilarrek gogoan du oso urduri zegoela: “Laineza handia genuen Donostiako kontuarekin, baina ardura ere bazen, eta ni neu behintzat oso urduri nengoela dut gogoan”, dio. Esperientzia polita izan omen zen; eta jendeak, gainera, harrera oso ona egin zion beren erakustaldiari. “Baina ez pentsatu bukatu ostean zelebraziotarako betarik genuenik.

Handik etxera, hurrengo egunean lanera joan behar genuen eta!”.

Urte batzuen ostean, Enrikek antzerkia zuzentzeari utzi zion, eta Imanol Eliasek hartu zion testigua.

Hala ere, Enrike eta Pilar berriro antzerkiak batuko zituen, urte asko beranduago. “Orain dela ez dakit zenbat urte, hamar bat edo, jubilatuetako urteurrenen bat zela eta, antzerki saio txiki bat egittea pentsatu zuten jubilatuen asterako edo, eta deitu egin zidaten. Han ere Enrikerekin aritzeko aukera izan nuen. Pena izan zen jende aurrean behin egin eta kito izan zela”, dio Pilar Aizpitartek.

EUSKARA AHOAN ETA BIHOTZEAN

Zaila da euskararekiko harra noiz sartu zitzaion asmatzea. Kontatu ohi zuenez, Zaragozan ikasten ari zela, han zeuden euskaldunak elkartu, eta euskararen eta euskal kulturaren inguruan hainbat ekintza antolatu zituzten. Ordurako, beraz, hasi zen euskararen aldeko apustua egin eta kultura bultzatzen.

Gerra ostean ere, giro zailean, diktadura garaiko urte zailetan ere zirrikituak bilatuko zituen ahal

zuen bozgorailua erabiliz euskaraz aritzeko. Aipatzekoa da, benetan *La voz de Guipuzcoa* irratian urte luzez egindako lana.

Euskarak alor publikoan tarterik ez zuen garaian, oso jarraitua izan zen irrati-saioa egin zuen euskaltzale talde batek, eta tartean zen Enrike, Joxe Miel baserritarrarena egiten. Irratsaio hartan 25 urtetik gora egingo zituen baserritarrei ganadu zein baserri munduko beste hainbat arlotako aholkuak ematen.

Abertzale izan gabe, euskararen aldeko apustu sendoa egin zuen. Herriaren arima hizkuntza zela esan ohi zuen, eta hura defendatzen zuen. Baina bazen gustatzen ez zitzaion kontu bat. Kontu garrantzitsua, gainera. Ez zuen euskara batua maite. Ez zitzaion gustatzen, eta euskalkien kontrakotzat zuen. Lekuan lekuko euskara zaindu eta entzutea gustatzen zitzaion, eta euskara batuak hori zapuztuko zuenaren ustea zuen.

Autodidakta izan zen euskaraz ikasterako garaian ere. Inoiz ez zen inora joan euskaraz idazten ikasteko, baina liburu eta apunteetatik jasotako jakituriarekin komunikabide ezberdinetarako ehundaka artikulua, eta erretiratu ostean hainbat liburu idatzi zituen, euskaraz.

HEDABIDEETAKO KOLABORATZAILE

Euskarazko zein gaztelaniazko hedabideetan kolaboratu zuen Enrikek. ‘Iru baserritarrekin izketan’ eta ‘Jose, Jose... aguro gure etxera’ izeneko artikuluekin hasiko zen zeregin horretan. 1954an, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak kaleratzen hasi zen *Luberri* izeneko aldizkariaren lehendabiziko alean hasi zen euskarazko hedabideetan idazten Zurutuza.

Hala ere, bere bizitza eta baserri askotako egunerokoa markatuko zuena Zurutuzak beste hainbat euskaltzalerekin batera, urte luzez, euskara hutsean egin zuen irratsaioa izango zen. Maria Dolores Agirre, Manu Oñatibia, Joxe Mari Etxebeste eta Inazio Eizmendi *Basarni*-rekin urteetan egin zuen ‘Baserria’ izeneko saioa. 1955. urte inguruan hasi ziren irratsaioarekin. 25 urtetik gora aritu ziren *La Voz de Guipuzcoa* irratian. Irratsaioa, gainera, sinesgaitza egiten bada ere falangisten laguntzarekin hasiko zen emititzen.

Ostiral arratsaldetan emititzen ziren, Joxemiel (Zurutuza) baserritarrak eta Don Antonio (Oñatibia) albaitariak, baserria oinarri hartuta izaten zituzten elkarrizketa interesgarriak.



25 urte baino gehiagoz
irradi saioa egin zuten
lagunak, 1979an.

Jarraipen zabala zuen irratsaioak Euskal Herriko baserrietan, eta baserrietatik kanpo. Herrietan, irratsaioa ematen zuten egun eta orduan ezer ez zen antolatzen. Hain izan zen handia irratsaio hark izandako oihartzuna, Jose Antonio Agirre lehendakariak ere Parisetik (Frantzia) gutuna bidali ziela euskararen aldeko ahalegina eskertu eta egiten zuten lanagatik zoriontzeko.

Baina kolaborazio lan horiek ez ziren hor bukatzen: Manu Oñatibiarekin batera Goiz-Argi aldizkariaren sortzaileetakoa izan zen 1958an. 1958 eta 1959an ‘Ganaduaren sal-erosketak’, ‘Izkutuko ajeak’ eta ‘Praixko bei erosten’ izeneko artikuluak argitaratuko zituen Arantzazu aldizkariaren eranskin gisa zabaltzen zen aldizkaritxoan.

1974ko ekainaren 9an Donostiako *La Voz de España* egunkariak euskara hutsezko orrialdea argitaratzeari ekin zion. Hala zioen lehendabiziko hitzaurrean: *Izan leike, irakurle gaur orri onen aurrean, piska bat arrituta zu gelditzea. Orri osoa euskeraz alajañetan –esango dezu zure baitan – bai, orri osoa euskeraz, bañan au utsarekin ez gera kontent geldituko.*

Beste piskatxo bat ere esan nai genizuke. Eta danen gañetik, orri au ez dala azaltzen horrela, burua jaso eta segituan bereala urpetzeko...

...Igandero-igandero orri onetatik euskaldunarekin egoera bat egitea...

Orretarako, baserria buruz buru inork bezin ondo ezagutzen duten bi gizon argik astero agertuko dituzte bere idatz lanak orri onetatik. Oi biak dira: Basarri eta Zurutuza jauna. Oien bien lanakin beteko ditugu orri onen lekuri mardulenak, mamitsuenak. Gero, noiztik noizka, len esan degun bezela, beste hamaika idazle...

Bidea ireki degu eta balantzaka-balantzaka bada ere —ume txikien gisan— aurrera segitzeko zuen begira-menarekin kontatzen degu”.

Lehenengo ale hartan, Basarrik ‘Nire bordatxotik’ atalari emango zion hasiera, eta Enrike Zurutuzak, berriz, Arria eta Errekartetxo harri-jasotzaileei elkarrizketa egin zien.

La Voz de España-n, Diario de Navarra-n eta Hoja del Lunes-en ere hainbat eta hainbat artikulo idatziko zituen. Han eta hemen idatzitakoak bilduz, mila artikulu inguru idatziak izango zituen. Gehienak nekazaritzaz eta abeltzaintzaz, baina euskal kultura eta ohiturei buruz ere idatziko zuen tarteka

Hitzaldi eta seminarioetan ere hartu ohi zuen parte. Gertu zein urruti, zekien hori zabaltzen saiatzen zen. 1977an UEUn ‘Ganaderitzaren posibilitateak Euskal Herrian’ izeneko hitzaldia eman zuen.

Donostiako Kaputxinoenean, berriz, Asisko Frantziskori buruzkoa. Joan Arin Dorronsoro ataundar etnologoarekin lankidetzan jardun zuen, batez ere, ardien gaitzen inguruan. Joan Goikoetxea euskaltzain urgazle nafarrak baserriz baserri ezizenak bilduz egin zuen ikerketan ere lagunduko zion. 1997an Loiola-Donostia Herri Irratietarako ‘Manu Oñatibiaren heriotzan’ izeneko lana egin eta grabatu zuen.

Azken urteetan, literaturara ere egin zuen salto; 1999an, *Etumetako Basajauna* Arakistainen lana itzuli eta egokitu zuen euskarara. 2008an, berriz, Felipe Arin Dorronsoro ataundar epaileari buruzko biografia argitaratu zuen.

Komunikabideetan eta euskararen alde egindako lana eskertu nahian, Ataungo Atauniker eta Azpeitiko Baite elkarteetako ohorezko bazkide izandatu zuten. 2003ko otsailaren 15ean izendatu zuen Baitek Ohorezko Bazkide Pilar Aizpitarterekin batera, euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan guztia eskertu asmoz.

Kolaborazio asko egin zituen han eta hemen, eta askotan denbora nondik ateratzen zuen jakitea ere zaila da. Berak azaldu ohi zuenez, lana medio alde batetik besterako tartean, buruan kolaborazio-

etarako eskemak egin eta lantzen zituen. Ondoren tarte bat zuenean idazteko. Seme gazteenaren hitzetan, bazuen beste truko bat ere: “Txakurrak bezalakoa zen. Lo tarteka egiten zuen. Oraintxe bi ordu, beranduago beste bi... eta hala ere ondo bizi zen. Horrela, gauetan jaiki eta igoal hasten zen bere kolaborazioak idatzi edo bestelako lanak egiten. Tarteak zuenean han jarduten zen liburu eta koaderno artean”.

FAMILIA OSATUZ

Lanera Azpeitira etorri zenean, sarralletarren etxean jarri zen bizitzen, apopilo. Eta hantxe aurkitu zuen emaztea, Maria Dolores Odriozola (2009an hil zen). Emaztea, beraz, sarralletarra.

1946an ezkondu ziren, eta emaztearen izeba batekin joan ziren bizitzera. Familia osatzen hastean, ordea, izebaren etxea utzi, eta Etxe Zuri gainera joan zen bizitzera Zurutuza-Odriozola sendia. Handik aurrera, bere azken egunera arte, Perez Arregi plazan biziko zen Zurutuza.

Zazpi seme-alaba hazi zituzten: Mari Karmen, Arantxa, Iñaki (2011n hil zen), Mari Loli, Kike, Jose Mari eta Isabel. Berak esan ohi zuenez, “lista pasa-

tu behar” izaten zuen etxean denak ote ziren jakiteko. Baina Enrike eta Maria Doloresen asmoa ez zen zazpi haur izatea. Izan ere, bosgarrenari, Kikeri, bere izena jarri zion Enrikek, azkena izango zelakoan. Baina handik urte batzuetara bikiak izan zituzten, Jose Mari eta Isabel.

Baina horrenbeste izanda ere, denentzat izango zen lana. Inoiz ez zen hutsik gelditzen zurutuzata-rren etxea: “Beti norbait egon behar izaten zuen etxean. Amak irten beharra bazuen, seme-alabaren bat gelditu behar izaten genuen. Badezpada, gelditzen ginen, telefonotik deitzen bazuten, edo norbait aitarengana etortzen bazen abisua hartzeko”.

AITA ETA ATTITTE

Denbora gutxi pasatu zuen etxean seme-alabak txikiak zirenean. Han eta hemen, alde batetik bestera ibili ohi zen aita. Hala ere, seme-alabak gazteak zirenean, behintzat, aita gogorra izan omen zen. Ez ikasketa kontuan hainbeste, baina bai bestelako kontuetan. “Batez ere gaztetan gurekin gogor xamarra izan zen. Nik aitarekin harremanik onena eta politena jubilatuta zenetik aurrera izan dut”, aitortzen du Jose Mari *Tutu*-k.

Agosto 1961



Zurutuza Odriozola
familia, 1961ean.



Emike eta Maria Dolores senaren azteak beren seme alaba eta
ilobekin urtebetetzeak ospatzen 2005 urtean, Getariako baserrian.

Nahiz eta zazpi senidetatik bostek ikasketak izan, gazteenak, behintzat, ez zituen estu hartzen ikasketa kontu horietan.

Tarteka, uda partean batez ere, semeak kaletik ateratze aldera edo bere lana erakutsi asmoz, autoan sartu eta baserrietara eramaten zituen. Irteera horietan baserrietan jasotako propinak semeen artean ere banatzen zituen.

Mikel Astiz bilobak, attitteren txikitako oroitzapenak Getariako baserriarekin lotzen ditu. “Gutudan joaten ginen batik bat baserrira, baina txikitako eta attitterekin ditudan lehen oroitzapenak hango behiekin-eta lotzen ditut, gehienbat”, aitortzen du.

Enrikek ez zituen etxeko animaliak gustuko, baina baserrian izan zuen katua oso maitea omen zuen. “Adinean aurrera joan ahala, nik uste gero eta maiteagoa zuela, gainera”, aitortzen du bilobak.

Aitonak eta bilobak oso harreman berezia zuten, eta hala aitortzen dute gertuko guztiek. Bilobak ere, aitortzen du begiko zuela: “Ez dago ondo nik aitortzea, baina bai, nik uste dut nirekin bazuela, besteekin ez zuen bezalako konfiantza berezi bat”. Bazuten bien artean zerbait berezia, beraz.

Azpeitiko zezen plazako albaitari ere izan zen.



ipe Arinen biografiaren aurkezpenean, liburuak sinatzen (argazkia, nar/Maiz, Goierriko Hitza)

Mikel, attitte Enrike bezala, oso ondo moldatu izan da ikasketetan, eta hori izan daiteke gakoak: “Nik uste, nigan bere isla edo erreleboa ikusten zuela zentzu batean, eta horregatik genuen hartu-eman berezi hori. Edo hori uste dut nik behintzat”. Seme-alabei bezala, Mikeli ere ez zion ikasketekin bestelako gerrarik ematen: “Ez dut gogoan behintzat. Baina egia da, azterketaren batean nota ona atera nuela esaten banion, edo lorpen txikiren bat azaltzen banion, era batera edo bestera zelebraturako genuela. Bazkaltzera gonbidatu edo propinarekin bat emango zidan. Horrela animatzen ninduen ni behintzat”.

Gaztetatik, gustuko izan du attitterekin berriketan aritzea ere. “Gure aitonak zenbait kontutan asko zekien, eta niri asko gustatzen zitzaidan harekin berriketan aritzea. Hitz egiteko ere asko balio zuen, eta ni oso gustura egoten nintzen berarekin”. Hizketan pasatutako igande horietatik sortu zen Enrike eta Mikelen harreman estua, baina ordenagailuak ere elkartu zituen.

“Adinean oso aurrera eginda zela hasi zen ordenagailuan eta Internet erabiltzen. Berak bazuen motibazio pixka bat eta guk bultzatu egin genuen, eta ordenagailua jarri genion etxean. Oso burugo-

gorra zen attitte, eta denbora librea ere bazuen, eta han ibiltzen zen, baina kostata ikasi zuen”, gogoratzen du. Ordenagailuen kontuan Mikelekin baka-
rrik fio omen zen: “Ordenagailuan ezagutzen edo ulertzen ez zuen leihatilaren bat agertzen bazi-
tzaion, inori ez zion ukitzen uzten. Ni joan arte han izaten zuen ordenagailua piztuta, astebete eduki behar bazuen ere”.

Attitte miretsi egiten zuen Mikelek, eta gusta-
tzen zitzaion harekin denbora partekatu eta pasar-
teak entzutea.

LANGILE NEKAEZINA

Enrikek denerako ateratzen zuela denbora dirudi. Eguneroko bere albaitari ibiliez gain, afizioetarako denbora ere ateratzen zuen. Eta lanbideari lotutako beste hainbat kontu ere egin zituen.

Bolada batez behintzat, baserritarrentzat pen-
tsua egiten ere ibili zen. “Gogoan dut gu nola era-
maten gintuen Zestoan zuen lokalera, pentsua egi-
tera”, gogoratzen du Jose Mari *Tutu*-k. “Aitak esa-
ten zigun zer eta zenbat nahastu, eta guk hark
esandakoa egiten genuen, zer egiten ari ginen
arrasto handiegirik izan gabe”, azaltzen du.

Baserritarrei pentsua saltzeaz gain, zenbait irteera ere antolatu izan zituen, ganadua erosteko. Baserritarrekin joan ohi zen ganadu ferietara eta. Han ganadua begiratu eta onenak aukeratzen laguntzen zien baserritarrei.

Urte askoan, Azpeitiko zezen plazako albaitari lanak ere egingo zituen.

Handik eta hemendik hots egiten zioten hitzaldi edo konferentziak emateko ere. Eta joan ohi zen. Euskal Herrian zein hemendik kanpo hitzaldi eta konferentzia ugari emandakoa zen Zurutuza. Gustatzen zitzaion bidaia txikiak egin eta leku ezberdinak ezagutzea, eta gustura ibiltzen zen. “Amak ere, ahal zuenetan laguntzen zion. Amari ez zitzaion askorik gustatzen alde batetik bestera ibiltze hori, baina hiru-lau eguneko irteera horietara, gu hazitakoan behintzat, laguntzen zion”, gogoratzen du seme gazteenak.

Gogoan du, lanak alde batera utzi eta Benidormera joan zirenekoa: “Aitak ziatika zuela eta Benidormera joan ginen. Gure aitari mendia bai, baina hondartza ez zitzaion batere gustatzen”. Eta han ere ezin lanak alde batera utzi. “Izango zuen orduan ere atzeratutako zerbait edo egunkariren baterako zerbait idatzi beharra. Hara ere bere

Bere Getariako baserrian.



te Euskara
arteak 2003an
ar Aizpitarterein
era Ohorezko
kide egin zuen
aldian.

karpeta eraman, eta han hamakan eserita, paper artean pasatu zituen oporrak”. Ondoren, erretiroa hartzean egun batzuek pasatzera Fiterora-eta joaten zen emaztearekin.

UKUILUAK UZTEKO GARAIA

Maria Dolores Odriozola emazteak hala esaten omen zuen, gaztelaniaz: “*Un jubilado en casa, es como una bañera en el pasillo*”. Beldur zen Enrikeren sendia nola moldatuko zen erretiroa hartzean. Baina denen ezusterako, oso ondo moldatu zen.

Albaitaritza ibilbidea utzi zuen 70 urte beteta zituela, baina ganaduarekin zuen lotura ezin utzi segituan. Ordurako bazuen baserria Getarian, eta ezin horrenbeste urte eta gero ganaduak albora utzi. Eta hantxe pasatzen zituen orduak.

Hala, tratuan hasi zen behiekin. Britainiatik ekartzen zituen Getariako baserrira. Gero saldu egiten zituen. Horretantxe pasatzen zuen erretiroan denbora. Baserrira joan eta hantxe, behiekin.

Urte luzez aritu zen zeregin horretan ere, baina urteekin ahitzen joan zen, eta horri ere utzi egin behar izan zion. Hala ere, segitzen zuen, eramaten zutenean, baserrira joan eta bere saltsan.

“Inoiz ez zuen eskatzen ezer, ezta baserrira eramateko ere. Amak eskatzeko arazorik ez zuen bezala, aitari asko kostatzen zitzaion gauzak eskatzea. Baina etxean aspertuta ikusten genuenean, hurrengo egunean baserrira joango ginela esan, eta pronto egoten zen beti, baserrira joateko beti zegoen prest hura”, gogoratzen du *Tutuk*.

Zahartzaroan ere errutina zalea izan zen. Jaiki, gosalduta eta liburutegira joan ohi zen egunkariei bistadizoa bota eta beste zerbaite irakurtzeko. Handik, Amuko zubitik Apaizen Paseo aldetik –izan zen arte, behintzat– ematen zuen buelta bat. Eta bazkal ostean siesta. Ez txiki-txiki horietakoak, gainera. Ez zuen inongo arazorik bi orduko siesta luzeak egiteko. Siestatik esnatzean bere ordenagailu edo liburuen artean ibiltzen zen, bisitarik ez bazuen. Norbait etxean bazen, kontu kontari gustura pasatuko zuen arratsaldea.

ERREKONNOZIMENDUAK

Erretiroa hartu ostean, han eta hemen, Ataunen zein Azpeitian, egin izan zizkieten omenaldiak, Azpeitiaren alde zein euskararen alde eginiko lanagatik. Urteetan barrena egindako lana errekonozitu

nahi izan zioten. Enrikeri gustatzen zitzaizkion kontu horiek, nola ez. “Hala ere, eskerrak emate hori ez zitzaion gehiegi gustatzen, edo ez zuen asmatzen. Eta alde horretatik, eman gabe utzi zituen eskerrak”, dio semerik gazteenak.

Ez zen sentimenduak asko agertzeko gizona, kostatu egiten omen zitzaion, eta horrelakoetan oraindik eta gehiago.

Hala ere, jaso zituen aitorpen batzuk. Besteak beste, lehen aipatu bezala, Baitek ohorezko bazkide egin zuen Pilar Aizpitarterekin batera. Eta Azpeitiko Udalak ere egin zion erretiroa hartzean esker ona adierazteko omenaldia.

AZKEN ESFORTZUA

Pilota gustatzen zitzaion Zurutuzari. Telebistan ikusteko zerbait ordaindu behar izan balu, pilota ikusteagatik ordainduko lukeela diote ingurukoek. Pilota beste kirolik ez omen zitzaion gustatzen.

Baina, halabeharrez, realzale ere egin zen. Hain juxtu, 2008ko azaroaren 23tik aurrera izan zen realzale, egun horretatik Realean zurutuzatar bat baita jokalaria. David Zurutuza, Enrike Zurutuzaren biloba da –Iñaki Zurutuza zenaren semea–, eta

hura Realean hasi zenean egin zen realzale attitte Enrike.

Bere azken egunetan ere animoak bidali nahi izan zizkion Realari, eta batik bat bilobari.

2010eko maiatzaren 30ean hil zen Enrike, igandean, Xoxoteko Egunean. Aurreko egunean, larunbatean, Realak Villa-real B-ren aurka partida garrantzitsua zuen, partida hura irabaztea pauso handia baitzen Realaren lehen mailara igotzeko.

Hori jakinda, Martin Lasarte entrenatzaileak bere jokalaria motibatu nahi zituen. Lasarteren emaztea psikologoa da, eta hark jokalarien familia eta lagunekin osatutako bideoa egitea pentsatu zuen, partida aurretik jokalariei jartzeko. Eta hala xe egin zuten. Eta Azpeitira ere etorri ziren, partida baino hiru bat egun lehenago, Daviden familiarekin bideo bat grabatzera. Ordurako, Enrike pattal zegoen, baina egun hartan ohetik jaiki, eta familiako beste zenbait kiderekin batera, Realeko bufanda eta guzti, etxeko sofatik bilobari bere animoak bidali zizkion. Huraxe izango zen Enrikeren agurra.

Azken esfortzu horrekin bukatu zuen Enrikek bere milaka piezako puzzlea osatzea.

Uztarriaren Produktuak

Liburuak

Joxe Takolo	Enekoitz Esnaola, 2001
Angel Otaegi	Iban Arregi, 2001
Imanol Elias	Mailo Oiarzabal, 2002
Patxi Altuna	Josune Etxeberria, 2003
Azpeitiko efemerideak	Imanol Elias, 2003
Azpeitiko mendi gida	Lagun Onak Mendi Bazkuna eta Uztarria, 2004
Euskarazko prentsa eta Azpeitia	Uztarria, 2004
Loiolarikez balitz	Iñigo Aranbarri eta Jose Luis Otamendi, 2005
Otsobeltz	Andoni Salegi, 2005
Urrestillako musika taldeak	Asier Sustaeta, 2006
Azpeitiarrak Espainiako Gerran	Amaia Mendizabal, 2006
Oroitarri	Kepa Urbietta, 2008

CD-A

Urolaldeko bertso zaharrak	Erniarraitz Bertsozale Elkarte eta Uztarria, 2007
----------------------------	--

Liburuxka Biografikoak

Julian Bereziartua	Ander Ugarte, 2009
Leo Etxeberria	Miren Garate, 2009
Valentina Agirre	Olatz Prat, 2009
Santi Lazkano	Nekane Zinkunegi, 2010
Amaia Garmendia	Xabier Otamendi, 2010
Enkarna Arregi	Alexander Silva, 2010
Iñaki Bergara 'Pio'	Monika Juaristi, 2011

UZTARRIAREN BABESLEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



